***Relativa a la oposición social a aspectos lingüísticos del currículum vasco*** (Admisión a trámite) (08/10.05.03.1767)

La Mesa, en su reunión del día 11 de marzo de 2008, acuerda admitir a trámite para su respuesta por escrito la PREGUNTA formulada al consejero de Educación, Universidades e Investigación por D.ª M.ª Isabel Celaá Diéguez, parlamentaria del grupo Socialistas Vascos, y ordena su remisión al Gobierno Vasco y su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

**La presidenta del Parlamento Vasco**
**Izaskun Bilbao Barandica**

A la Mesa del Parlamento Vasco

D.ª Isabel Celáa Diéguez, parlamentaria del grupo Socialistas Vascos, al amparo del vigente Reglamento de la Cámara tiene el honor de presentar la siguiente pregunta, para su respuesta por escrito, al consejero de Educación, Universidades e Investigación, relativa a la oposición social a aspectos lingüísticos del currículum vasco.

Justificación:

Los avances hacia el bilingüismo logrados durante los últimos veinticinco años han sido posibles por un amplio consenso social en los objetivos y en los instrumentos utilizados para ese fin.

Sin embargo, las modificaciones sin consenso transversal en el tratamiento lingüístico que ha introducido el Departamento de Educación en el decreto de desarrollo curricular aprobado el pasado noviembre para la Educación Básica han originado oposiciones diversas y desde distintos ámbitos. Es el caso de padres y madres ya organizados con ese motivo o del director de algún centro concertado que, desde el objetivo de alcanzar el bilingüismo, ha cuestionado públicamente que el euskera y el castellano no estén en pie de igualdad aunque con un tratamiento distinto según la edad.

Por eso, el grupo parlamentario Socialistas Vascos desea conocer:

1. ¿Modificará usted el Decreto 175/2007, de 16 de octubre, por el que se establece y se implanta el currículo de la Educación Básica en la Comunidad Autónoma del País Vasco, para garantizar a nuestras dos lenguas oficiales un tratamiento en pie de igualdad?

2. Ha anunciado usted una experimentación para el tratamiento de las lenguas. ¿Con qué alcance? ¿Con qué bases y características? ¿En cuántos centros y de qué titularidad? ¿Durante cuánto tiempo? ¿Con qué objetivos y medidas concretas en la evaluación?

***Euskal curriculumeko hizkuntza-alderdi batzuek gizartean sortu duten aurkako jarrerari buruz*** (Tramitatzeko onartzea) (08/10.05.03.1767)

Mahaiak, 2008ko martxoaren 11ko bileran, erabaki du tramitatzeko onartzea, idatziz erantzuteko, M.ª Isabel Celaá Diéguez Euskal Sozialistak taldeko legebiltzarkideak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuari egindako GALDERA, eta agindu du Eusko Jaurlaritzari bidal dakiola eta Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara dadila.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria**
**Izaskun Bilbao Barandica**

Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

Isabel Celaá Diéguez Euskal Sozialistak taldeko legebiltzarkideak, Legebiltzarrean indarrean dagoen Araudiaz baliatuz, ondoko galdera aurkezten dio Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuari, euskal curriculumeko hizkuntza-alderdi batzuek gizartean sortu duten aurkako jarrerari buruz, idatziz erantzuteko.

Arrazoiak:

Azken hogeita bost urteetan elebitasunerako bidean egindako aurrerapausoak, helburuen inguruko eta helburuok lortzeko tresnen inguruko adostasun sozial zabalari esker lortu dira.

Hala ere, joan den azaroan onartu zen Oinarrizko Hezkuntzarako curriculuma garatzeko dekretuan, hizkuntza-trataerari dagokionez, Hezkuntza Sailak zenbait aldaketa gehitu ditu zeharkako adostasunik gabe. Horrek, zenbait esparrutik hainbat kontrako jarrera eragin du. Besteak beste, helburu horrekin antolatu den gurasoen taldearen kasua dugu, edo itunpeko ikastetxe bateko zuzendariaren kasua, zeinak jendaurrean zalantzan jarri baitu, elebitasuna lortzeko helburuari dagokionez, euskara eta gaztelera berdintasunean ote dauden, adinaren arabera trataera ezberdina bada ere.

Hori dela-eta, Euskal Sozialistak legebiltzartaldeak honako hauek jakin nahi ditu:

1. Euskal Autonomia Erkidegoan Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma sortu eta ezartzen dituen urriaren 16ko 175/2007 Dekretua aldatuko duzu, gure bi hizkuntza ofizialen berdintasuna bermatzeko?

2. Hizkuntza-trataerarako saiakuntza bat iragarri duzu. Norainokoa? Zein dira bere oinarri eta ezaugarriak? Zenbat ikastetxetan egingo da eta horietatik zenbat dira publikoak eta zenbat pribatuak? Zenbat denboran? Zein dira helburuak eta ebaluazio-neurri zehatzak?

En Vitoria-Gasteiz, a 7 de marzo de 2008

**M.ª Isabel Celaá Diéguez, parlamentaria del grupo Socialistas Vascos. José Antonio Pastor Garrido, portavoz**

***

***Relativa al desarrollo del Plan Estratégico del Olivar de la CAPV y en concreto a la construcción de un trujal en el término municipal de Moreda en la Rioja Alavesa*** (Admisión a trámite)
(08/10.05.03.1768)

La Mesa, en su reunión del día 11 de marzo de 2008, acuerda admitir a trámite para su respuesta por escrito la PREGUNTA formulada al consejero de Agricultura, Pesca y Alimentación por D. José Luis Anda Fernández, parlamentario del grupo Socialistas Vascos, y ordena su remisión al Gobierno Vasco y su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

**La presidenta del Parlamento Vasco**
**Izaskun Bilbao Barandica**

A la Mesa del Parlamento Vasco

José Luis Anda Fernández, parlamentario del grupo Socialistas Vascos, al amparo de lo dispuesto en el vigente Reglamento de la Cámara, tiene el honor de realizar, al excelentísimo señor consejero de Agricultura, Pesca y Alimentación, las siguientes preguntas para su respuesta por escrito, relativas al desarrollo del Plan Estratégico del Olivar de la CAPV y en concreto a la construcción de un trujal en el término municipal de Moreda en la Rioja Alavesa.

Justificación:

El 18 de febrero de 2005 el Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación del Gobierno Vasco aprobó el Plan Estratégico del Olivar de la CAPV. En la elaboración de dicho plan participaron, junto con el Gobierno Vasco, las diputaciones de Álava y Guipúzcoa, el Instituto de Investigación Agraria Neiker, la Fundación Kalitatea, el Instituto de Formación Mendikoi y las asociaciones de olivareros Santa Eulalia y Trujales de Rioja Alavesa.

Se establecieron una serie de objetivos prioritarios con objeto de impulsar el desarrollo del citado plan, entre los cuales figuran:

- Aumentar la producción, incrementando la superficie plantada.

- Potenciar una estructura de servicios al sector que permita un alto nivel de vertebración del mismo en aspectos de cultivo, transformación y comercialización.

- Potenciar la Asociación del Olivar en Rioja Alavesa como órgano común y referente del mismo.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko martxoaren 7a

**M.ª Isabel Celaá Diéguez, Euskal Sozialistak taldeko legebiltzarkidea. José Antonio Pastor Garrido, bozeramailea**

***

***EAEko Olibadiaren Plan Estrategikoaren garapenari buruz eta, zehazki, Moredako udalerrian (Arabako Errioxan) olio-errota bat eraikitzeari buruz*** (Tramitatzeko onartzea)
(08/10.05.03.1768)

Mahaiak, 2008ko martxoaren 11ko bileran, erabaki du tramitatzeko onartzea, idatziz erantzuteko, José Luis Anda Fernández Euskal Sozialistak taldeko legebiltzarkideak Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburuari egindako GALDERA, eta agindu du Eusko Jaurlaritzari bidal dakiola eta Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara dadila.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria**
**Izaskun Bilbao Barandica**

Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

José Luis Anda Fernández Euskal Sozialistak taldeko legebiltzarkideak, Legebiltzarrean indarrean dagoen Araudiaz baliatuz, idatziz erantzuteko ondoko galderak egiten dizkio Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburuari, EAEko Olibadiaren Plan Estrategikoaren garapenari buruz eta, zehazki, Moredako udalerrian (Arabako Errioxan) olio-errota bat eraikitzeari buruz.

Arrazoiak:

2005eko otsailaren 18an, EAEko Olibadiaren Plan Estrategikoa onetsi zuen Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailak. Plan hori egiten, Eusko Jaurlaritzarekin batera, Araba eta Gipuzkoako aldundiak, Neiker nekazaritzako ikerketa-institutuak, Kalitatea fundazioak, Mendikoi prestakuntza-institutuak eta Santa Eulalia eta Trujales de Rioja Alavesa oliogile-elkarteek hartu zuten parte.

Lehentasunezko helburu batzuk jarri ziren planaren garapena bultzatze aldera, honako hauek besteak beste:

- Ekoizpena gehitzea, landatutako lur-azalera handituz.

- Sektorearentzako zerbitzu-egitura bat bultzatzea, sektorearen egituratze-maila handia bideratu ahal izateko landatzeari, eraldatzeari eta merkaturatzeari dagokienez.

- Olibadiaren Elkartea bultzatzea Arabako Errioxan, sektorearen organo bateratu eta erreferente gisa.